

## Leiho-eguraldia

Zenbateraino probablea zen fiordo urrun eta galdu horretan umezaroko adiskide bat topatzea? Auskalo. Egia esanda, matematikan inoiz ez naiz oso trebea izan. Are gutxiago, estatistikan. Oroitzen naizela, Edurne ere ez zen oso iaioa zenbakiekin. Esango nuke Javier irakasleak lehen mailako ekuazio bat egiteko arbelera atera zuen egun horretan, berak bezain gaizki pasatu nuela nik. Mutu geratu zen, arbelari begira, eskumako eskerrarekin klarionari eusten zion bitartean. Eskerrekoarekin, berriz, haren ile beltz luzea arakatzeari ekin zion, urduri. Klaseko atzeko aldetik irri meheren batzuk entzuten hasiak ziren. Eskerrak Javier irakaslea jatorra zela. Edurnerengana hurbildu, eta zerbait esan zion belarrira; ondoren, Edurne berriro bueltatu zen bere eserlekura, begirada zoruan finkatuta zuela.

Ezinezkoa zen. Horrenbeste denbora ikusi gabe, hamarkadak seguruenera, eta, halere ezagun bat aurkitzea espero izatekoa zen azken lekuan berriro bera topo egin nuen. Hobeto esanda, topo egin omen nuen arte. Egia esanda, zalantzaz josita nago. Baina bost axola: nire ariman geratu den zaporea zinez polita da.

Asko aldatua zegoen. Ni bezala, suposatze dut. Ezaguna da norberak zailagoa duela denboraren ibilbide tematiak utzitako marka zurrunez konturatzea. Baina denboraren martxa geldiezinaren aurrean ere, norberaren arima beti moldatzen da nortasunaren ezaugarriren bat bere horretan gera dadin. Haren kasuan, ahotsa zen gehiegi aldatu ez zen aldagaia. Islandiako haize zakarraren artean ere, Edurneren ahots indartsua aise gailendu zen udaberriko arratsalde horretan. Beste norbaitengana zuzendu zen. Lehen sorpresa izan zen euskaraz botatako hitzak Islandian entzutea. "Aitzol, etorri!". Baina, hizkuntzaren

gertutasunaz harago, ahotsean ere bazegoen zerbait guztiz hurbilekoa egiten zitzaidana; haurtzarora eramaten ninduen.

Dozena bat turista egongo ginen Hellnar herritik gertuko kostaldean bilduta. Hasiara batean, harengana hurbildu nintzenean, ez nuen ezagutu. Baina, gerturatzen ari nintzela, Edurnek begirada bota zidanean, berehala konturatu nintzen lehen hezkuntzan izan nuen klaseko kidea zela. Alboan ume bat zeukan. Geroago azaldu zidanez, haren zortzi urteko Aitzol semea zen.

Haren aurpegian marraztua zegoen harridura-imintzioa berehala irribarre zintzoa bilakatu zen.

—Mari? Mari al zara? —galdetu zidan, bizkarrean zeukan motxila bat lurrean uzten zuen bitartean. Oroimen hori guztiz txertatuta dago nire gogoan. Errealitate ufada baten antzera sentitu nuen, bederen.

Hura poza hartu genuena biok! Hasierako ezustekoa pasata, hizketan hasi ginen, minutu batzuek inguruan genuen paisaia miresgarriak ahaztuta. Ni bezala, bera ere oporretan zegoela kontatu zidan, semearekin. Aitzolen aita, baina, Euskal Herrian geratua zen, lan egin behar zuelako, baina berak baliatu nahi izan zituen Aste Santuko oporrak Islandiaren dohainez gozatzeko.

Gertuko kanpin batean apopilo zegoela esan zidan. Nik autokarabana bat alokatua nuenez, ez nuen birritan pentsatu. Esan nion kanpin horretara ere joango nintzela karabanarekin.

Gau horretan, autokarabanan afaldu genuen hirurok. Soberako lekua zegoenez, biak nirekin geratu ziren lo egitera. Kanpin-dendan baino hobeto egoten zen bertan, zalantza

izpirik gabe. Aitzolek ere gozaldi ederra hartu zuen afariarekin, aitortu zidanez, ordura arteko saltxitzez ahituta. Bera ohera joan zenean, Edurne eta biok autokarabanaren kanpo aldean geratu ginen, hizketan, eskolan bizi izandako garaiak gogora ekarrita, eta bizitzak bakoitzari emandakoaren berri emanez. Dezenteko arropa jantzita genuen. Artean bederatziak ez baziren ere, temperaturek azkar behera egiten zuten Eguzkiak jotzen ez zuenean. Garai horretan kanpin-denboraldia hasi berria zenez, bisitari gutxi batzuk baino ez geunden ostatu hartuta, eta apenas entzuten zen zaratarik. Izar batzuk atzematen ziren arren, gau horretan ez genuen aukerarik izan aurora ikusteko.

Zeinen hizketaldi ederra izan genuen, giro paregabea.

Hurrengo egunean, hirurok berriro ekin genion bidaiari, autokarabanan. Udaberriak izan ohi dituen bat-bateko haserrealdi horietako batean, eguraldia guztiz gaiztotu zen, eta goiz osoan euria botatzen ibili zen. Islandia bezalako toki batean data horien bueltan hori nahiko ohikoa izan arren, astebete eskaseko oporraldi batean, egia esanda, zertxobait gogaikarria ere bazen. Hamaiketako hartzeko unean errepedearen alboan aparkatu nuen, mokadu bat hartzeko.

—*Gluggaveður*—esan zidan Edurnek, autokarabanaren leihatila batetik paisaia euritsuari begira ari ginela.

—Nola?—galdetu nion, hitz arraro hori ezin ulertuz.

—Leiho-eguraldia—azaldu zidan Edurnek, esku artean zuen kafe-kikara alboan utzi eta kristalean atzamarrarekin zenbait kolpetxo eman zituen bitartean—. Herrialde honetan ondotoxo dakite zer den eguraldi eskasari begira egotea, baina jakin badakite une horri ere

edertasun puntu bat ateratzen. Kanpoan egiten duen eguraldi kaxkarrari etxeke samurtasunetik begira egoteari *gluggaveður* deitzen diote.

Egiantan, egoerari ikuspuntu berri batetik begiratzeko modua zela pentsatu nuen. Hainbat minutuz hor geratu ginen biok, eguraldi eskasari begira, tutik esan gabe. Aitzol ohean botata zegoen, eskuetan liburu bat hartua zuela. Hortaz, inork ez zuen isiltasun une hori apurtu. Euri tantatxoek gogor jotzen zuten kristalaren kontra, eta —ikusten ez bagenituen ere—, autokarabanaren karrozeriaren kontra ere jotzen zuten. Etengabeko soinuak, behintzat, hori adierazten zuen.

Isiltasuna apurtu gabe, Edurnek imintzio bat egin zidan buruarekin, atera seinalatuz: ateratzeko gonbidapena zen. Birritan pentsatu gabe, autokarabana aparkatuta zegoen zelaira atera ginen. Atea ireki bezain pronto haizetearen bultzada gogorra sentitu nuen aurpegiaren kontra, bai eta euriaren indarra ere. Alabaina, espero baino epelagoa zen. Eskuak altxatu nituen, eta biraka hasi nintzen, begirada zerura zuzentzen nuen bitartean. Edurnek berdina egin zuen.

Hor ibili ginen, dantzan, munduaren txoko urrun batean ezustean topo egin ostean. A zer bustialdia hartu genuena! Baina euri hori, arropa zeharkatzeaz gain, arima ere bustitzera iritsi zelakoan nago ni orain.

Ondoren esan zidanez, bere bidaia guztietan saiatzen zen bertoko hizkuntzaren erraietan ere bidaia txiki eta arin bat egiten. Kontatu zidan nola bidaiari asko saiatzen diren bisitatu behar duten herrialdearen hizkuntzan ahalik eta hitz eta esaldi gehien ikasten, baina, argudiatu zuenez, horrekin estresatzea baino ez zuten lortzen. Berak nahiago omen zuen hitz polit eta esanguratsu bat ikastea, eta, ahal izatekotan, hitz hori lehen pertsonan

bizitza. Eta poztu bide zen *gluggaveður* hori zer zen lehen eskutik ikasi eta *bizi* ahal izateagatik. Baita bere arimaren marka propio eta berezkoa uzteko aukera edukitzeagatik ere: leihoaren bi aldeetatik gozatzeko aukeraz baliatzea.

Hori izan zen Edurne eta Aitzol ikusi nituen azken eguna. Hurrengo goizean esnatu nintzenez, nire autokarabanako ohe txikian ni baino ez nengoen. Hasiera batean aztoratu nintzen, baina bidaiari berriro bakarrik ekitea beste erremediorik ez nuen.

Jakin badakit euripeko dantza horren osteko oroitzapenak nahiko lausoak direla. Eta nire bisitari berezien bestelako aztarnen zantzurik ere ezin izan nuen aurkitu. Lurrak irentsi izan balitu bezala izan zen.

Noizean behin burura datorkit hori guztia nire buruaren asmakizun hutsa bat izan zelako ideia. Baina pentsamendu hori aise alboratzen dut. Azken finean, berdin zait. Islandia sorgindutako lurraldea dela irakurri dut behin baino gehiagotan, eta bertoko biztanle gehienek, XXI. mendean ere, naturaren jeinu eta izpiritueta sinesten omen dute. Ez dakit Edurne eta Aitzol izaera horren adierazpen bat izan ote ziren, ala nirekin benetan egon ote ziren. Bost axola. Guztiz.

Bakar-bakarrik ala Edurnerekin lagunduta, jakin badakit udaberriko goiz batean euripean dantzari aritu nintzela Islandian, eta egun horretan *gluggaveður* hitza nire buruan loratu zela. Eta, horrekin batera, eguraldia edozein zela ere, bizitzaren mirariaz gozatzeko gogo indartsua ere piztu zitzaidan erraietan.

EGILEA: ZAB TALDEA